

# 2026ko AMURRIOKO JAIETAKO KARTELA DISEINATZEKO DEIALDIA

## PROIEKTURAKO DEIA

Amurrioko Udalak dei bat egin die diseinuaren eta sorkuntza artistikoaren arloko profesinalei Amurrioko 2026ko jaietako kartela egiteko.

### DEIALDIAREN HELBURUA:

2026ko Amurrioko herriko jaietako kartel ofiziala diseinatzea, bai eta horiek publizitate- eta sustapen-euskarrietan izan ditzaketen aplikazioak ere.

### NORENTZAT:

Diseinuko, diseinu grafikoko eta sorkuntza artistikoko profesionalak. Pertsona fisikoak, lantaldeak eta diseinu-azterlanak sartzen dira.

## 1. FASEA, PROIEKTUETARAKO DEIA

Baldintza:

- Portfolio edo book bat, gehienez 5 proiektuekin (benetakoak edo simulatutakoak), enkarguaren gaiarekin lotuta. Proiektu bakoitzeko gehienez 3 irudi izan daitezke, eta horri gehituko zaio curriculum labur bat eta motibazio idatzia orrialde bat baino gehiago ez dena.

Aurkezpen fisikoa egiten bada, portfolioa inprimatuta edo USB bidezko euskarrian aurkeztu beharko da, PDF formatuan eskatzen den edukiarekin berdina.

Fitxategi digitala dokumentu bakarrean aurkeztu behar da, edukia guztira gehienez 10 MB-ko pisuarekin, curriculum eta motibazio idatzia barne. Ez dira onartuko fitxategi konprimituak edo kanpoko estekak.

**Aurkezteko epea:** 2026ko martxoaren 30etik apirilaren 17ra.

**Aurkezteko lekua:** Amurrioko Kultur Etxean bertan (Landako kalea 8, 01470 Amurrio) edo posta elektronikoz: [kulturetxea@amurrio.org](mailto:kulturetxea@amurrio.org)

Bi kasuetan, azken egunena 14:00ak arte.

## 2. FASEA, AURRE-HAUTAKETA

Batzorde aditu batek, diseinu grafikoarekin, kulturarekin edo foru-/udal-erakundeekin lotutako hiru teknikaririk osatuta, hiru proposamen finalista hautatuko ditu.

Amurrioko Udaleko kultura teknikaria izango da idazkaria, bozik gabe.

Aurre-hautaketarako irizpideak:

-Aurkeztutako lanen ibilbide profesionala eta sormen-kalitatea:	% 40
-Portfolioaren edukiaren egokitasuna enkarguaren objektuarekiko:	% 40
-Hautagaiaren originaltasuna, kalitatea eta proiektzio profesionala:	% 20

Batzordearen ebazpena justifikatua eta behin betikoa izango da.

Proposamen finalista bakoitzak 300 € jasoko ditu proiektua garatzeko ordainsari gisa.

### 3. FASE, HAUTAKETA

Aurrez hautatutako proposamenek 15 egun izango dituzte 2026ko jaien irudia garatzen duen zirriborroa aurkezteko.

Honako hauek jaso beharko dituzte:

- Kartelaren zirriborroa
- Proposatutako testua (egileak aukeratutako ordena eta posizioa)
- Azalpen kontzeptual laburra (gehienez, A4aren alde bat)

Hautatutako egile bakoitzaren esku dago bocetoaren garapen-maila, boceto kontzeptualetik arte amaituaren mailara joan daiteke.

Batzordeak argibide edo osagarriak eskatu ditzake beharrezkotzat jotzen baditu.. Azken kartelak Amurrioko Udalaren egungo logotipoa eta "Amurrioko Jaiak 2026. Abuztuaren 12tik 17ra".

Formatua: 70 zm. garai x 50 zm. zabal. Kartela formatu bertikalean baino ez da interpretatuko.

### BALORAZIO-IRIZPIDEAK

- **Diseinuaren eduki artistikoa:** originaltasuna, sormena, kalitate kontzeptuala eta teknikoa, izaera berritzailea. (% 20)
- **Elementu tradizionalak integratzea:** Amurrioko jaiari buruzko erreferentziak (% 20)
- **Publizitate-osaera eta -funtzionaltasuna:** kartela sustapen-tresna gisa egokitzea, hainbat euskarritara egokitzeko erraztasuna eta erreproduzigarritasuna (% 20)
- **Diseinu tipografikoa eta elementu grafikoak:** testuaren integrazio harmonikoa, logotipoak eta tipografia. (% 20)
- **Balio sozialak eta berdintasuna:** aniztasun soziokulturalaren irudikapena, sinbolikoa edo literala, sexu- edo genero-identitatearekiko errespetua eta sexu-orientazioa (% 20)

## **BALDINTZA GEHIGARRIAK**

- Lanak originalak eta argitaragabeak izango dira. Ez da onartuko aldez aurretik argitaratutako edo zabaldutako kopiarik, egokitzapenik edo obrarik, ezta sare sozialetan ere.
- Debekatuta dago kartelak osorik edo partzialki sortzeko adimen artifizial generatzaileen erabilera, lanaren egilegintza bermatzeko eta eskubideak zuzen kudeatzeko. Erabiltzea detektatuz gero, Udalak bere ebazpena bat-batean baliogabetu ahal izango du, inolako erantzukizunik gabe.
- Kartel irabazleak egilearen eta Udalaren artean adostutako doikuntzak edo egokitzapenak jasan ahal izango ditu.

## **ORDAINSARIAK ETA ESKUBIDEAK**

- Hautatutako proiektuak Amurrioko 2026ko Jaietako kartela diseinatzeko enkargu ofiziala jasoko du, 800 euroko zuzkidurarekin, finalista izateko ordainsariei gehituko zaizkienak.
- Ordainketak faktura bidez egingo dira, aplikagarria den atxikipena kontuan hartuta eta BEZa salbuetsita, dagokionez.
- Hautatutako proiektuak ezarritako epean entregatu beharko du azken artea. Bete ezean, diru-zuzkidura galduko da, eta hurrengo sailkatuari esleituko zaio.

## **ESKUBIDEEN LAGAPENA**

- Egileak Amurrioko Udalari ematen dizkio kartela erabiltzeko eskubideak, erreprodukzioa, banaketa, hedapena eta eraldaketa barne (hainbat publizitate-euskarri eta grafikotara egokitzea).
- Kartela 2026ko Zaindariaren Jaien testuinguruan soilik erabili eta erakutsi ahal izango da, muga geografikorik eta denborazkorik gabe.
- Beste edozein erabilera egiteko, egilearen baimen esplizitua beharko da.